

Kike Diez de Ultzurrun Sagalá

Udaberririk ez

Eusko Alkartasunak munta handiko akordio bat hartu zuen Gasteizko Legebiltzarrean, 2009ko ekainean; hots, aurrerantzean, kontu politiko mamitsu orori buruzko erabakiak exekutiba nazionalak hartuko zituen, hautagaitza eta zerrendaburu guztien gaineko erabakiak barne. Horrek eskumenik gabe utzi zuen Nafarroako EA bere estrategia markatzeko. Lizarrako EAK, aho batez, osotasuneko zuzenketa bat aurkeztu zuen biltzarrean, bai eta NaBairen aldeko apustu sendoa eskatu ere; biltzarrak, ordea, eskaerak atzera bota zituen. Nafar bat mintzatu zen Lizarrako EAKideen eskarien aurka: Koldo Amezketak. Azken finean, hura beste aurre-rapauso bat izan zen, bi urte lehenago EAren eta Ezker Abertzale ilegalizatuaren artean urratzen hasitako bidean. Gero, bi indar politikoen arteko *Lortu*



JSU SANTESTEBAN

kin; jende horri NaBai barruan bidea erraztu ordez, jende horrentzako toki zabala eta eroso bilatu ordez, giroa are gehiago tenkatu eta Nafarroa Bai Nafarroako EAren oinarri sozialik gabe utzi dute; oraingoz, behintzat. Batzarrerik gabe, NaBai jarrai zezakeen, baina ez da inola ere gauza bera izanen, EAko jendearen ekarria biltzen ez badute.

Horra, beraz, zeinen mingots dauden gauzak Nafarroako Eusko Alkartasunean eta, zeinen garratz ere, are garratzago ez errateagatik, Nafarroa Bai, noiz eta bi hila-bete doi gelditzen direnean udaberriko hauteskundeetarako. Hori gutxi delakoan, gainera, batzuk eta besteak elkarri mokoka ari dira, egunero, tai gabe, zeinek handiagoa bota, eta ez dirudi atertzeko asmotan dabil-tzanik. Egia erran, hein batean, horrela eman dituzte 2007tik hona joan diren urte



Zuzendaritza guztiek erakutsi dute antzeko jokabidea; Aralarrek, Eusko Alkartasunak, EAJk eta Batzarrek. NaBaitik kanpoko negu-giroak atxikiarazi ditu koalizio barneko supazter goxoaren arrimuan, suak (eta boto-emileen eraman handiak) betirako iraunen zuelakoan. Ahaztu dira, ordea, sua zirikatzeaz eta hauspotzeaz, eta sua itzali da; edo, hobe erran, itzali egin dute, jakin gabe, mendi gaineko elurrak gesaltzen hasiak badira ere, primaderarik ez dela Nafarroarat heldu; ezta helduko ere



guztiak, eta zuzendaritza guztiek erakutsi dute antzeko jokabidea; Aralarrek, Eusko Alkartasunak, EAJk eta Batzarrek. NaBaitik kanpoko negu-giroak atxikiarazi ditu koalizio barneko supazter goxoaren arrimuan, suak (eta boto-emileen eraman handiak) betirako iraunen zuelakoan. Ahaztu dira, ordea, sua zirikatzeaz eta hauspotzeaz, eta sua itzali da; edo, hobe erran, itzali egin dute, jakin gabe, mendi gaineko elurrak gesaltzen hasiak badira ere, primaderarik ez dela Nafarroarat heldu; ezta helduko ere. ■